

# **Begoña Garate: txokolatea lanbide bihurtzen denean**

Mendaro, mila biztanle dituen  
Gipuzkoako herri bat da

2010 Aza 4

Mendaro, mila biztanle dituen  
Gipuzkoako herri bat da. Deba ibaia,  
lehen nabigagarria zena, handik  
pasatzen da. Eta haraino iristen ziren  
Indietako produktuak: banilla,  
kakao, azukre, espeziak, kanela,  
kafea..., eta elizaren ondoan zegoen –  
oraindik ere han dago– denda batean

saltzen ziren: Saint Gerons  
txokolateak ( ikusi  
[www.chocolatesdemendaro.com](http://www.chocolatesdemendaro.com)).  
1850. urtea zen

Begoñaren senarrak herentzian  
hartu zuen etxe hura. Etxebizitza,  
denda, txokolate lantegia eta kakao  
errotak, dena batera. Orduko, baziren  
bi urte ez zela han batere lanik  
egiten. Eta uda hartako arratsalde  
batean, erdi serio erdi txantxetan,  
Begoñak senarrari eskatu zion errotak  
hura erabiliz txokolate egina  
prestatzea. Jolasean hasi zena,  
mundu osora txokolatea esportatzen  
duen enpresa bihurtu zen.

Senarra gogoratzen zen oraindik  
nola funtzionatzen zuen haurtzaroan  
ezagutu zuen errotak. Txokolate  
eginaren “esperimentua” hain ondo  
atera zen, non Begoña bonboi  
batekin lehenbizi eta gero trufa  
batekin saiatzea animatu baitzen.

Bera beste lanbideetan aritua zen, izan ere gizarte-laguntzan eta pedagogian, baina txokolate trebaketa hastapenen ikastaro bat egin zuen Leonen, eta han eskuratu zituen txokolateari buruzko oinarritzko ezaguerak. Gero Frantzia eta Belgikako beste etxeekin harremanetan jarri zen, beti izan baitira gai hauetan onenen artean aipatuak.

Eta saltzen hasi ziren. Mendaroko zaharrak harri eta zurezko denda zoragarri hartaz oroitzen ziren. Hiru urte geroago, Donostian eta Bilbon ireki zituzten dendak. Artisau txokolatea da, kalitate onenekoa.

Opus Dei nola ezagutu zuen galdetu diodanean, 1976ko ekainaren 26a aipatu dit, San Josemariaren heriotzaren lehenengo urteurrena. Etxez aldatu berriak ziren. Ez zuten eserlekurik ez mahairik, ogitarteko bat bakarrik afaltzeko. Eta

telebistaren konexioa ondo zegoen ala ez ikusi nahi izan zuten. Piztu zutenean, Opus Deiri buruzko dokumental bat ematen ari ziren. Bertan, San Josemaria azaltzen zen, pertsona multzo handi baten artean filmatutako solasaldi batean, Jainkoa ezkon bizitzan eta eguneroko zereginetan aurkitzeaz hitz egiten.

Berak datua ondo gorde, baina bi hilabete geroago arte ez zuen beste ezaguerarik izan.

Orduan “Sukaldaritza ikastaroak etxeko langileentzat” ikusi zuen iragarpen batean, Opus Deiko emakumeek zuzentzen zituztenak Donostian. Lolitari, bere etxean lan egiten zuen emakumeari, ikastaro hori egitea proposatu zion. Lolitak onartu zuen. Ez zekien orduan ez irakurtzen, ez idazten, bere etxean – ijito etniakoak ziren– ezin izan baitzuen ikasi. Handik denbora gutxira, Begoña inbitatu zuten

Koruko Ama Birjinaren elizara  
erretiro batera.

Begoña supernumeraria da ordutik  
eta, nahiz erretiratua dagoen  
hilabete batzuk ezkerro, enpresa  
bultzatzen jarraitzen du. Orain bere  
hiru alaba ari dira lanean. Haien  
aholkulari bihurtu da, eta bere  
esperientzia pasatzen saiatzen da.

Opus Deira hurbildu zen arte, oso  
gutxi egiten zuen otoitz; izan ere,  
bere seme-alabek ikastetxe laikoetan  
ikas zezatela nahi izan zuen; baina  
*Goldatz* (Surco) liburuaren 498.  
puntua irakurtzeak “lehen, patatak  
zuritu besterik ez zuen egiten; orain,  
patatak zurituz, santu egiten ari da”  
kolpe izugarria sortu zion ariman.  
“Egiten ari zaren gauzen bidez  
Jainkoa ukitzea, horixe da  
aurkipenik handiena” dio.

“Egintzak argi berriz argitu du nire  
bizitza zentzu berri bat eta  
alaitasuna emanez, baita gurutzea

gehiago sentitzen denean ere” dio jarraian. Izan ere, gurutzea familia honetan azaldu izan da bai oinaze fisiko bezala, bai gaur egungo gizartean familiei sortzen zaien beste problemen moduan ere: “Opus Deik gogorarazi dit gurutze ondoan egotea Kristoren ondoan egotea dela. Eta egia da Gurutzearen ondoan aurkitu dudala, emana izan zaidan bakea eta baretasuna.

Begoña beti lanean dabil, beti proiektuak eta gurariak daramatza buruan. Asko gustatuko litzaioke Txokolate Adiskideen Elkartea bat sortu Gipuzkoan eta interes bera duten pertsonak ezagutu, berak sentitzen duen txokolatearen grina kutsatu, ikastaroak prestatu eta kakao landaketa inportanteak dauden lekuetara bidaiak antolatu.

---

pdf | document generated  
automatically from [https://opusdei.org/  
eu-es/article/begona-garate-txokolatea-  
lanbide-bihurtzen-denean/](https://opusdei.org/eu-es/article/begona-garate-txokolatea-lanbide-bihurtzen-denean/) (2025 Api  
20)